

Urduñako

Aurreku eta Fandango eta Arin – Arin Txapelketa

Txapelketako Oinarriak

Maiatzaren 12an – 18:30etan Gernika enparantzan

Oinarri Orokorrak: Dantzariak probak hasi baino 30 minuto lehenago egon beharko dute bertan. Lehenik aurrekulariak arituko dira eta ondoren fandango eta arin – arineko bikoteak. Proba bietan derrigorrezkoa izango da arropa tradizionala erabiltzea. Ez da adin ezberdinetako mailarik egongo, ezta inolako adin mugarik ere.

- Aurrekua: Urriko aurrekuaren doinuz txistulariak jota eta orden honetan: Desafioa, eskuz eskukoa, zortzikoa eta kontrapasa.
- Fandangoa eta arin- arina: Fandangoa txistulariek joko dute eta arin – arina, berriz, trikitrixarekin eta panderoz joko da.

Partehartzaile kopurua: 5 aurrekulari eta 5 fandango eta arin – arin bikote izango da onartuko den parte – hartzaile kopururik handiena.

Izena ematea: Martxoaren 26tik apirilaren 13rarte izango da izena emateko epea. Izena ematen duten lehengoek hartuko dute parte. Apuntatu ahal izateko : otxomaiotxapelketa@hotmail.com helbidera bidali behar izango da mezu bat, horretarako formulario bat bidaliko dugu. Parte hartzaileen behin betiko zerrenda e-mail bidez zabalduko da apirilaren 16an.

Epaimahia: zenbait dantzari eta dantzari ordeek osatuko dute. Puntuaketa: 0-10 puntu bitartean baloratuko da, dantzaren aspektu hauek ikusita: erritmoa, sinkronia, estiloa, zailtasuna eta janzkera.

Epaia: epaileek emandako puntuaketaren batuketaren bitartez emango da emaitza, hau apelaezina izango delarik. Lehengoan 3 postuen artean berdinketarik balego, berdinduek proba errepikatu beharko lukete.

Sarien banaketa: Epaimahilak bere epaia eman eta gero egingo da.

Sariak:

Aurreku	Fandango eta Arin - Arin
1.Saria: 150€ + Txapela+ Trofeoa 2.Saria: 120€ + Trofeoa 3.Saria: 75€ + Trofeoa	1.Saria: 160€ + Txapela – Zapia + Trofeoa 2.Saria: 140€ + Trofeoa 3. Saria: 100€ + Trofeoa

Aurrezku txapelketan parte hartzen dutenak 30€ko dieta jasoko dute.

Fandango eta Arin – Arin Txapelketan parte hartzen dutenek 40€ko dieta jasoko dute.

** Kontaktu zenbakia: 696 058 398 (Ainhua Gutiérrez – Erauntsi Dantza – Taldeko idazkaria)